cristina enea
FUNDAZIOA

# AGENDA 2026

## UDAZKENA
## OTOÑO

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



# **Iraila** Septiembre

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 01 | 02 | 03 | 04 ■ | 05 | 06 |
| | | | | ***Pleamar* programa: arrantzaren eta akuikulturaren iraunkortasuna sustatuz** Programa *Pleamar:* impulsando la sostenibilidad de la pesca y acuicultura | | |
| 07 | 08 | 09 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 ■ | 19 | 20 |
| | | | | **Park(ing) day** | | |
| 21 | 22 ■ | 23 | 24 ■ | 25 | 26 | 27 |
| | **Hazi lana** | | **Tokiko artoak** Maíz local | | | |
| 28 | 29 ■ | 30 | | | | |
| | **Hazi lana** | | | | | |

■ **ERAKUSKETAK** EXPOSICIONES
■ **HITZALDIAK** CONFERENCIAS
■ **IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
■ **ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
■ **IRTEERAK** SALIDAS
■ **BESTEAK** OTROS

# **Urria** Octubre

**01**

**02**
**Urumeako Atlas Emozionala**
Atlas Emocional del Urumea

**03**
Las manzanas de Katxola

***Pleamar* erakusketaren bisita gidatua eta tailer didaktikoa**
Visita guiada a la exposición *Pleamar* y taller didáctico

**04**
**Añarbeko urtegira eta bere inguru ederrera bisita**

**05**

**06**
**Hazi lana**

**07**

**08**

**09**

**10**
**Animalien koreografiak**
Coreografías animales

**Burujabe cha cha cha**

**11**
**Paper artean hegan**

**12**

**13**

**14**

**15**

**16**
**Aste Hau - The Week**

**17**
**Baso bainua Donostian**

**Bihotz Inguru baso txangoak**
Por el bosque con Bihotz Inguru

**18**
Baños de bosque en San Sebastián

***Pleamar* erakusketaren bisita gidatua eta tailer didaktikoa**
Visita guiada a la exposición *Pleamar* y taller didáctico

**19**
**Aste Hau - The Week**

**20**

**21**

**22**

**23**

**24**
**Udazkeneko arte laborategia**
Laboratorio de arte de otoño

**25**

**26**
**Aste Hau - The Week**

**27**

**28**

**29**
**Tokiko artoak Euskal Herrian**

**30**

**31**

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIONES
**HITZALDIAK** CONFERENCIAS
**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
**IRTEERAK** SALIDAS
**BESTEAK** OTROS

# Azaroa Noviembre

01

02

03

04

05

06

07

08

09

10
**Haziak erauzteko tailerra**
Taller de extracción de semillas

11

12
Co-construir con la naturaleza respuestas victimales

13

14
**Bihotz Inguru baso txangoak**
Por el bosque con Bihotz Inguru

15

16

17

18

19
Cosas de manzanas, lectura compartida

20

21

22
**Ibilbide didaktikoa Urumearen ibarrean zehar**
Recorrido didáctico a pie por la vega del Urumea

23

24
**Haziak erauzteko tailerra**
Taller de extracción de semillas

25

26

27

28
De parque a parque: Miramon

29
**Parketik parkera: Miramon**

30

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIONES | **HITZALDIAK** CONFERENCIAS | **IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES | **ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES | **IRTEERAK** SALIDAS | **BESTEAK** OTROS

# Abendua Diciembre

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 01 | 02 | 03 | 04 | 05 | 06 |
| 07 | 08 | 09 | 10 | 11 | 12<br>**Bihotz Inguru baso txangoak**<br>Por el bosque con Bihotz Inguru | 13<br>**Baso bainua Ulian** |
| 14 | 15<br>**Alekara bisita**<br>Visita a Aleka | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIONES
**HITZALDIAK** CONFERENCIAS
**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
**IRTEERAK** SALIDAS
**BESTEAK** OTROS

# **OHARRA** AVISO

Gure jarduerетan plazen erabilgarritasuna bermatzeko eta erreserbak gauzatzeko helburuarekin, Cristina Enea Fundazioak fidantza-sistema bat ezarri du agenda honetako jarduera jakin batzuetan. Fidantza hori jarduerara etortzen diren pertsonei itzuliko zaie jarduera amaitutakoan. Hala ere, egoera hau aprobetxatu nahi dugu ingurumenarekiko sentsibilitate berezia erakusten duten establezimenduetan kontsumoa sustatzeko, produktu ekologikoak, sasoikoak, bertakoak edota bigarren eskukoak salduz. Saretuz Sarea www.saretuz.eus osatzen dutenak dira.

Horrela, gure aletxoa eman nahi dugu, kontsumo arduratsua eta tokiko ekonomia sustatzeko.

Horregatik, fidantza deskontubonu gisa itzuliko da, adierazitako establezimenduetako edozeinetan trukatzeko.

Con el objetivo de garantizar la disponibilidad de plazas en nuestras actividades y que las reservas se lleven a cabo, Fundación Cristina Enea ha adoptado un sistema de fianza en determinadas actividades de esta agenda. Dicha fianza se devolverá a las personas que hayan acudido a la actividad una vez esta finalice. Sin embargo, queremos aprovechar esta situación para fomentar el consumo en establecimientos que muestran una especial sensibilidad por el medio ambiente comercializando productos ecológicos, de temporada, locales y/o de segunda mano, y que son aquellos que se integran en la Red Saretuz. www.saretuz.eus

Queremos de esta manera aportar nuestro granito de arena para impulsar el consumo responsable y la economía a escala local.

Por ello, la fianza se devolverá como un bono descuento para ser canjeado en cualquiera de los establecimientos indicados.

# *Pleamar* programa: arrantzaren eta akuikulturaren iraunkortasuna sustatuz

## Programa *Pleamar*: impulsando la sostenibilidad de la pesca y acuicultura

**Itsas ekosistemak babesteko eta arrantzaren eta akuikulturaren iraunkortasuna bultzatzeko arloan lortutako emaitzak eta aurrerapenak herritarrei hurbiltzea da erakusketa honen helburua, Pleamar Programaren esparruan Europako funtsen kofinantzaketari esker egin dena. Egitasmo honek arrantza- eta akuikultura-sektoreari laguntzeko helburua du, haren jardueren jasangarritasuna indartzeko eta itsasoko biodibertsitatea babesten, kontserbatzen eta lehengoratzen laguntzeko. Aukeratutako 20 proiektuen argazki-ibilbidearen bidez diseinatu da erakusketa.**

Esta exposición busca acercar a la ciudadanía los resultados y avances realizados en materia de preservación de los ecosistemas marinos y de impulso de la sostenibilidad pesquera y acuícola, gracias a la cofinanciación de los fondos europeos, en el marco del Programa Pleamar, con el objetivo de apoyar al sector pesquero y acuícola para reforzar la sostenibilidad de sus actividades y contribuir a la protección, conservación y restauración de la biodiversidad marina. La muestra consiste en un recorrido fotográfico a través de las imágenes de 20 proyectos seleccionados y se ha construido en base a premisas de reciclaje y recuperación del máximo número de elementos.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea




Cofinanciado por la Unión Europea

MINISTERIO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

Fondos Europeos

GOBIERNO DE ESPAÑA

VICEPRESIDENCIA TERCERA DEL GOBIERNO
MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO

Fundación Biodiversidad

Pleamar

# **Tokiko artoak** Maíz local

**Artoa elementurik inportanteenetako bat izan da laborantzako eta sukaldaritzako kulturan Euskal Herriko isuri atlantikoan. Azken urteetan, ordea, labore gisa desagertzen joan eta gero, gutxiago kontsumitzen da.**
**Prozesu horren ondorioz, desagertzen ari dira mendeotan bertakotzen joan diren arto aldaerak, herriz herri eta bailaraz bailara egokitu direnak.**
**2025ean, 27 arto aldaera identifikatu ziren eta aldaera bakoitza zein zaurgarritasun mailan dagoen aztertu zen. Argazki erakusketa honetan, egindako lanaren lagin bat ikusi ahal izango da, aldaerak, kokapenak eta berezitasunak aipatzen direlarik. Erakusketa aukera ederra izan daiteke ekoizle eta produktugileentzat, tokiko artoak eta eratorritako produktuek gaur egun eskaintzen duten potentziala aztertu nahiko balute.**

El maíz ha sido un elemento de gran importancia en la agricultura y la cultura culinaria de la vertiente cantábrica de Euskal Herria. En los últimos años, sin embargo, su cultivo ha disminuido drásticamente, del mismo modo que lo ha hecho su consumo.
Fruto de este proceso, están desapareciendo las variedades locales de maíz que a lo largo de los últimos siglos se han ido adaptando en los pueblos y valles de nuestro medio rural.
En 2025 se realizó una prospección en la que se identificaron 27 variedades locales de maíz, se hizo una primera caracterización y se analizó en qué medida cada una de estas variedades se encuentra en riesgo de desaparecer.
En esta exposición fotográfica se podrá ver una muestra del trabajo realizado, en el que se mencionan variedades, ubicaciones y particularidades. La exposición puede ser una buena oportunidad para productores y productoras que quieran analizar el potencial que ofrecen hoy en día las variedades locales y los productos derivados.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



# Urumeako Atlas Emozionala
## Atlas Emocional del Urumea

**Donostiatik igarotzean Urumea ibaiarekin izan dugun harremanaren historia, emozioak eta bizipenak ezagutzeko gonbidapena da *Urumeako Atlas Emozionala*. Herritarren parte-hartzearen bidez, proiektuak Urumearen inguruko oroitzapenak, testigantzak eta sentimenduak bildu ditu, hiriaren garapenari estuki lotuta daudenak. Erakusketa honek memoria partekatu horiek bildu eta forma ematen die, haien uretan eta ertzetan landu, gozatu eta bizi izan ditugun modu desberdinak zeharkatuz. Urumea, oraingo honetan, ez da paisaia kontenplatibo gisa agertzen, ezta elementu geografiko huts gisa ere, etengabe eraldatzen ari den organismo gisa baizik. Zauritua, etxekotua, ustiatua, ospatua eta populatua izan den ibai-gorputz bat. Oroimena gordetzen duen gorputz bat. Eta, gurea bezala, aldatu egiten da denborarekin.**

*El Atlas Emocional del Urumea* es una invitación a adentrarse en la historia, las emociones y las vivencias que han acompañado nuestra relación con el río, a su paso por San Sebastián. A través de la participación de la ciudadanía, el proyecto ha ido recogiendo recuerdos, testimonios y sentimientos en torno al Urumea, estrechamente ligado a la evolución de la ciudad. Esta exposición reúne y da forma a esas memorias compartidas, recorriendo las distintas maneras con las que hemos vivido, trabajado, disfrutado y habitado sus aguas y sus orillas. El Urumea no aparece en esta ocasión como paisaje contemplativo ni como mero accidente geográfico, sino como un organismo en transformación constante. Un cuerpo fluvial que ha sido herido, domesticado, explotado, celebrado y habitado. Un cuerpo que guarda memoria. Y que, como el nuestro, cambia con el tiempo.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



aranzadi zientzia elkartea · DONOSTIA SAN SEBASTIÁN · cristina enea FUNDAZIOA · TABAKALERA · STM San Telmo Museoa · donostia kultura · GIPUZKOA Foru Aldundia · añarbe urak aguas

29 **URRIA** OCTUBRE | **EU** | ES

18:00

**HITZALDIAK**
CONFERENCIAS

# Tokiko artoak Euskal Herrian

***Tokiko artoak* erakusketa dela eta, hitzaldi bat antolatu dugu Baztan, Basaburua Ttikia, Bortziriak eta Malerreka ibarretan 2025. urtean egin zen tokiko arto-barietateen prospekzio lana ezagutarazteko. Arto Gorria, artoaren barietate enblematiko hau berreskuratu eta mantentzen duten Iparraldeko ekoizle ekologikoen elkartearen esperientzia ezagutzeko aukera izango dugu.**

Con motivo de la exposición *Tokiko artoak,* se celebrará una charla para dar a conocer el trabajo de prospección de variedades locales de maíz que tuvo lugar en los valles de Baztan, Basaburua Ttikia, Bortziriak y Malerreka a lo largo del año 2025.
Por otro lado, podremos conocer la experiencia de Arto Gorria, una asociación de productores y productoras ecológicas de Iparralde que recuperaron y mantienen esta variedad emblemática de maíz.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



22-29 **IRAILA** SEPTIEMBRE
06 **URRIA** OCTUBRE

**ELEBIDUN** BILINGÜE
16:00

# Hazi lana

**Iritsi da udazkena, eta ondorioz, gure baratzeko hainbat hazi jasotzeko garaia da. Cristina Enea Fundazioaren Haziera hazi artxiboarekin nolabaiteko harremana duzuen lagunei deialdia egin nahi dizuegu, elikagai ezberdinen haziak (piperrak, kalabazina, errefautxoa, artobeltza, letxuga…) erauzteko eta garbitzeko zuen laguntza beharrezkoa baitugu. Udazkenean zehar hiru lan-jardunaldi berri partekatzeko gonbidapena helarazi nahi dizuegu, non elkarrekin lan egiten dugun bitartean, hazien ugalketari eta baratzeko lanei buruzko zalantzak eta esperientziak elkartrukatuko ditugun. Horrela, denon artean hazi-artxiboa bizirik eta eguneratua edukiko dugu. Haziak erauzteko edo garbitzeko baldin badituzu ere, ekar itzazu zure landareak ere.**

Llega el otoño y, por lo tanto, la época de recoger muchas de las semillas de nuestra huerta. Hacemos un llamamiento a las personas que colaboráis con el archivo de semillas Haziera de Fundación Cristina Enea para que vengáis a echar una mano extrayendo y limpiando semillas de distintos cultivos (pimientos, calabacines, rabanitos, trigo sarraceno, lechuga, etc.). A lo largo del otoño os proponemos compartir tres nuevas jornadas de trabajo, durante las cuales, mientras trabajamos conjuntamente, podremos intercambiar dudas y experiencias en torno a la reproducción de semillas y el cultivo de la huerta en general. De este modo, entre todas y todos, iremos manteniendo el archivo de semillas activo y renovado. Por supuesto, si tienes semillas para extraer o limpiar, no dudes en traer tus plantas.

---

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



16-19-26 **URRIA** OCTUBRE | EU | **ES** 17:00

**IKASTARO ETA TAILERRAK**
CURSOS Y TALLERES

# Aste Hau - The Week

**Klima-aldaketaz hitz egiten entzun duzu, baina ziurrenik ez ekonomian, gizartean eta beste hainbat esparrutan duen domino-efektuaz, ezta horri nola aurre egin diezaiokegun ere. Horregatik, *Aste Hau - The Week* esperientziara gonbidatzen zaitugu. Hiru saiotan dokumental baten kapituluak ikusi eta elkarrizketa gidatuak izango ditugu. Horiek datorrena ikusten eta horren inguruan zer egin dezakegun ulertzen lagunduko digute. Eta nahi baduzu, sortzen diren ideiak errealitate bihurtuko dituen taldean parte hartu ahal izango duzu. Metodologiari buruzko informazio gehiago www.theweek.ooo webgunean. Planeta Hau elkarteak antolatua: www.planetahau.org.**

Has oído hablar del cambio climático, pero seguramente no del efecto dominó que tiene en la economía, la sociedad y otros ámbitos, ni de cómo podemos afrontarlo. Por eso te invitamos a la experiencia *Aste Hau - The Week,* en tres sesiones veremos los capítulos de un documental y tendremos conversaciones guiadas que nos ayudarán a visualizar lo que se avecina y qué podemos hacer al respecto. Y, si tú quieres, podrás formar parte del grupo que llevará a la realidad las ideas que surjan. Más información sobre la metodología en www.theweek.ooo. Organizado por la asociación Planeta Hau www.planetahau.org.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



ASTEKLIMA 2026
Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

PLANETA HAU
Asociación por la transición a la suficiencia

24 **URRIA** OCTUBRE | **ELEBIDUN** BILINGÜE

11:00

**IKASTARO ETA TAILERRAK**
CURSOS Y TALLERES

# Udazkeneko arte laborategia
## Laboratorio de arte de otoño

**Naturan oinarritutako tailer artistikoa. Urtaro bakoitzak eskaintzen dizkigun elementuak baliatuko ditugu gure obrak sortzeko. Udazkenean txirikordatzeko teknikekin esperimentatuko dugu, zumea txirikordatu eta lotuz otartxo bat sortuko da tailer honetan.**

Taller artístico basado en la naturaleza, en el que aprovecharemos los elementos que nos ofrecen cada una de las estaciones del año para crear nuestras obras. En otoño experimentaremos con las técnicas de trenzado, ataremos y trenzaremos mimbre para crear nuestro propio cesto.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**FIDANTZA** FIANZA: **2€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



ASTEKLIMA 2026
Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

# Haziak erauzteko tailerra
# Taller de extracción de semillas

**Gure hazien uzta eta beren garbiketa eta gordetze egokia oso une garrantzitsuak dira. Horregatik, udazkenero tailer hau antolatzen dugu lan horiek modu egokian egiteko kontuan izan behar ditugun alorrak ezagutzeko. Beharrezko azalpenez gain,tailerrak zati praktikoa ere izango du non uzta ezberdinetako haziak erauzten, garbitzen, lehortzen eta gordetzen ikasiko dugun.**

La cosecha de nuestras semillas y su correcta limpieza y almacenamiento, son etapas muy importantes. Por esta razón, todos los años en otoño organizamos este taller en el que comentamos los aspectos que debemos tener en cuenta para realizar estas tareas de la mejor forma posible. Aparte de las explicaciones necesarias, el taller también incluye una parte práctica en la que aprenderemos a extraer, limpiar, secar y almacenar semillas de distintos cultivos.

10 **AZAROA** NOVIEMBRE | **ELEBIDUN** BILINGÜE

**17:00**

**LEKUA** LUGAR: **Uliako Lore Baratzeak** Viveros de Ulia

24 **AZAROA** NOVIEMBRE | **ELEBIDUN** BILINGÜE

**16:30**

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



12 **AZAROA** NOVIEMBRE | EU | **ES** | 17:00

**IKASTARO ETA TAILERRAK**
CURSOS Y TALLERES

# Co-construir con la naturaleza respuestas victimales

**IVAC/KREIk 'Salbatuentzako eta atxilotuentzako topaketak: errekuperazioa, enpatia eta erantzukizuna elkarlanean sortuz espetxe-inguruneak eraldatzeko' izeneko proiektua (2026-2027) garatzen ari da, Herbehereetako, Kosovoko eta Mazedoniako partnerrekin batera.**

El IVAC/KREI participa como partner en el proyecto europeo Restorative Encounters for Survivors and Detainees: Co -creating Rehabilitation, Empathy, and Accountability to Transform Prison Environments (2026-2027), Junto con partners de Paises Bajos, Macedonia y Kosovo.

---

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

---



INSTITUTO VASCO DE CRIMINOLOGIA · KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTOA ·

# Añarbeko urtegira eta bere inguru ederrera bisita

**Bisita honetan Gipuzkoako biztanleriaren % 44 urez hornitzen duen Añarbeko urtegiaren azpiegiturak eta bertan egiten diren maniobrak ezagutuko ditugu. Azpiegitura horiek klima-aldaketaren ondorioei nola aurre egiten dieten jakingo dugu, arro hidrografikoa kontserbatuz urhornidurako sistema horien erresilientzia handitzeko. Gainera, bertatik bertara gozatu ahal izango dugu bertako ingurune ederraz, eta hobeto ezagutu ahal izango dugu natura- eta paisaia-balio handiko espazio hori. Añarbeko Urak-ekin lankidetzan antolatutako jarduera.**

En esta visita descubriremos las instalaciones y las maniobras que se efectúan en la presa de Añarbe que abastece de agua al 44% de la población de Gipuzkoa. Conoceremos cómo afrontan estas infraestructuras las consecuencias del cambio climático, conservando la cuenca hidrográfica para aumentar la resiliencia de estos sistemas de abastecimiento de agua. Además, podremos disfrutar de primera mano del precioso entorno que la rodea y conocer mejor este espacio de gran valor naturalístico y paisajístico. En colaboración con Aguas del Añarbe.

---

**TOPALEKUA: Renfeko Norteko geltokiaren aurreko markesinan**
LUGAR DE ENCUENTRO: Marquesina situada frente a la estación del Norte de Renfe

---

**FIDANTZA** FIANZA: **5€**

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**

---



añarbe urak aguas

# Baso-bainuak Donostian
# Baños de bosque en San Sebastián

**Shinrin Yoku teknika (baso-bainuak), basoan jarduerak egitea da, naturarekin birkonektatzeko eta osasunerako onura zuzena lortzeko tresna.**
**Azterlan ugarik erakutsi dute naturarekiko kontaktuak, eta bereziki basoekiko, eragin oso positiboa duela gure ongizatean. Zortzi baso-bainuz osaturiko ikastaro honen helburua da gure zentzumenak esnatzen eta gure egunerokotasunean sortutako estresa eta tentsioak murrizten lagunduko diguten ariketa eta tresnak ezagutaraztea.**

La técnica Shinrin Yoku (baños de bosque), consiste en la realización de actividades en el bosque como herramienta para reconectar con la naturaleza y obtener un beneficio directo para la salud.
Numerosos estudios han demostrado que el contacto con la naturaleza, y especialmente en los bosques, repercute muy positivamente en nuestro bienestar. El objetivo de este curso, consistente en ocho sesiones de baño de bosque, es dar a conocer prácticas y herramientas que nos ayudarán a despertar nuestros sentidos, reconectar con la naturaleza y a rebajar el estrés y las tensiones generados en nuestro día a día.

17 **URRIA** OCTUBRE > 15 **MAIATZA** MAYO | **EU** | ES 10:30 **Larunbatetan hilabetean behin**

18 **URRIA** OCTUBRE > 16 **MAIATZA** MAYO | EU | **ES** 10:30 Los domingos una vez al mes

---

**LEKUA** LUGAR: **Aiete Kultur Etxea** Casa de Cultura Aiete

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE:
**www.donostiakultura.eus/eu/ikastaroak**

---

**PREZIOA** PRECIO: **75€**



donostia **kultura**

# Bihotz Inguru baso txangoak
# Por el bosque con Bihotz Inguru

**Gero eta gehiago dira haurrak naturarekin harremanetan hezteak beraien garapenerako duen garrantzia azpimarratzen duten ikerketak. Hori dela eta, Bihotz Inguru-Baso Eskola elkartearekin elkarlanean, familiartean egiteko irteerak antolatu ditugu. Ibilbideak 3-6 urteko haurrei egokituak izango dira eta hauen helburua inguruan ditugun baso eta naturgune desberdinak ezagutzeko aukera eskaini eta naturarekin harremana sustatzea da.**

Cada vez son más los estudios que demuestran la importancia de educar en contacto con la naturaleza y los beneficios que esto tiene para el desarrollo infantil. Junto con la asociación Bihotz Inguru-Baso Eskola, realizaremos diferentes excursiones adaptadas para niños y niñas de 3-6 años para disfrutar en familia, con el objetivo de conocer distintas zonas naturales de nuestro entorno y fomentar el contacto con la naturaleza.

**LEKUA** LUGAR: **Beloagako gaztelua, Oiartzun**
Castillo de Beloaga, Oiartzun

17 **URRIA** OCTUBRE | **ELEBIDUN** BILINGÜE
10:30>13:30

**LEKUA** LUGAR: **Plaiaundi, Irun**

14 **AZAROA** NOVIEMBRE | **ELEBIDUN** BILINGÜE
10:30>13:30

**LEKUA** LUGAR: **Agorregiko errota Manterolatik**

12 **ABENDUA** DICIEMBRE | **ELEBIDUN** BILINGÜE
10:30>13:30

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA**
ES NECESARIO INSCRIBIRSE:
**bihotzingurutxangoak@gmail.com**



ASTEKLIMA 2026
Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

**22** **AZAROA** NOVIEMBRE

EU | **ES**
10:30

**EU** | ES
12:00

**IRTEERAK**
SALIDAS

# Ibilbide didaktikoa Urumearen ibarrean zehar

## Recorrido didáctico a pie por la vega del Urumea

**Bisita honetan Donostiaren bizkarrezur izan den Urumearen ibaiari buruz gehiago jakiteko aukera izango dugu. Urumearen ibarrean jarritako panel didaktikoak baliatuz, edukietan sakondu eta Urumean oinarritutako lanbideen, bizimoduen, baserrien eta beste hainbat bitxikeriren inguruan jardungo gara, ibilbide atsegin bat eginez.**

En esta visita tendremos la oportunidad de conocer más sobre el río Urumea que ha sido la columna vertebral de San Sebastián. Aprovechando los paneles didácticos instalados en la vega del Urumea, profundizaremos en los aspectos mas significativos y desconocidos, como los oficios, estilos de vida, caseríos y otras curiosidades basadas en el Urumea, mientras realizamos un agradable recorrido a pie.

---

**TOPALEKUA** LUGAR DE ENCUENTRO: **Mikel Laboa zubia** Puente Mikel Laboa

---

**FIDANTZA** FIANZA: **2€**

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**

---



28 **AZAROA** NOVIEMBRE | EU | **ES** 11:00

29 **AZAROA** NOVIEMBRE | **EU** | ES 11:00

**IRTEERAK**
SALIDAS

# Parketik parkera: Miramon
# De parque a parque: Miramon

**Hiriko-parkeek funtsezko zeregina dute hirien eta bertako biztanleen ongizatean, berdeguneek lasaitzeko tokia eta naturaz gozatzeko aukera eskaintzen baitigute hormigoiz estalitako hirietan bizi eta lan egiten dugunoi. *Parketik parkera* ekimenak, Donostiako parkeak hobeto ezagutzera eta haietaz gozatzera gonbidatzen zaitu. Horretarako, irteera hauetan parke bakoitzaren historia ezagutu eta txokorik ederrenak esploratzeaz gain, familian jolasteko tartea ere izango dugu.**

Los parques urbanos juegan un papel fundamental en el bienestar de las ciudades y de sus habitantes, ya que zonas verdes nos permiten relajarnos y disfrutar de la naturaleza a quienes vivimos y trabajamos en ciudades cubiertas de hormigón. La iniciativa *De parque a parque,* te invita a conocer mejor y disfrutar más de los parques donostiarras. Para ello, en estas salidas además de conocer la historia de cada parque y explorar sus rincones más bellos, también tendremos la oportunidad de jugar en familia.

**TOPALEKUA** LUGAR DE ENCUENTRO: **Katxola baserria** Caserío Katxola

**FIDANTZA** FIANZA: **2€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



# **Alekara bisita** Visita a Aleka

**Aleka Euskal Herriko hazi ekologikoaren artisau-ekoizpenaren ekimen bakarra da. Oso esperientzia gaztea da, eta Gipuzkoako hainbat baserri biltzen ditu, helburu komun batekin: tokiko hazia ematea bertako nekazaritza ekologikoaren sektoreari, bai eta bere baratzea lantzen duen edonori ere. Alekaren koordinatzailen eta bultzatzaile Miguel Arribasen eskutik, Alekaren instalazioak (haziak erauzteko eta garbitzeko, biltegiratze-eremuak, laborategia, loteak egiteko eremua, etab.), funtzionamendua eta antolaketa eredua ezagutuko ditugu.**

Aleka es la única iniciativa de producción artesanal de semilla ecológica de Euskal Herria. Se trata de una experiencia muy joven que reúne a varios caseríos de Gipuzkoa bajo un objetivo común: proveer de semilla local y ecológica al sector agroecológico local, así como a cualquier persona que cultive su propia huerta. De la mano de Miguel Arribas, coordinador e impulsor de Aleka, conoceremos las instalaciones de Aleka (para la extracción y limpieza de las semillas, zonas de almacenamiento, laboratorio, zona de elaboración de los lotes, etc.), su funcionamiento y su modelo de organización.

**TOPALEKUA: Tolosako tren geltokian**
LUGAR DE ENCUENTRO: Estación de tren de Tolosa

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



18 **IRAILA** SEPTIEMBRE | **ELEBIDUN** BILINGÜE | 10:00

**BESTEAK**
OTROS

# Park(ing) day

***Park(ing) day*** **proiektu publiko eta parte-hartzaile global bat da, non mundu osoko jendeak espaloiko aparkalekuak aldi baterako berrerabiltzen dituen eta parke publiko eta espazio sozial bihurtzen dituen, jendearentzat kale seguruagoak, berdeagoak eta bidezkoagoak aldarrikatzeko.**

*Park(ing) day* es un proyecto global, público y participativo en el que personas de todo el mundo reutilizan temporalmente los espacios de estacionamiento en las aceras y los convierten en parques públicos y espacios sociales para abogar por calles más seguras, más verdes y más equitativas para las personas.

**LEKUA: Mandasko Dukearen Pasealekua 21**
LUGAR: Duque de Mandas 21



03 **URRIA** OCTUBRE | EU | **ES** | 10:30

**BESTEAK**
OTROS

# Las manzanas de Katxola

**Gure hirietan gero eta ohikoagoak dira jakiak ekoizteko guneak. Hiri baratzeak, baratze komunitarioak edo balkoi-baratzeak ugaltzen ari diren honetan, gure kale eta parkeetan elikagaiak sortzen dituzten beste biztanle batzuk aurki ditzakegu: fruta-arbolak.**
**Donostiako Udaleko Parke eta Lorategien departamentutik eta Cristina Enea Fundaziotik, baso jangarrien eredua hiriko gune desberdinetara zabaltzea oso interesgarri ikusten dugu, inguruko komunitateak inplikatu eta denontzako bizigarriagoak diren berdeguneak sortzeko. Horren adibide da Miramongo parkean landatutako sagastia eta ekintza honetan sagasti hori eta bertan dagoen Katxola baserria ezagutzera gonbidatu nahi zaituztegu.**
**Katxola ez da baserri soil bat, Tolare-baserria da eta Aieteko Lantxabe auzo elkarteko kideekin batera bere historia eta funtzionamendua ezagutuko dugu familia giroan. Horretaz gain sagarrondoek aurten emandako uzta auzolanean jaso eta horiekin zukua egin eta dastatzeko aukera izango dugu.**

Cada vez son más frecuentes en nuestras ciudades las zonas de producción de alimentos. Ahora que se multiplican los huertos urbanos, los huertos comunitarios o los balcones-huerta, podemos encontrar en nuestras calles y parques otros elementos que nos proporcionan alimento: los árboles frutales. Desde el departamento de Parques y Jardines del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián y desde Fundación Cristina Enea, vemos muy interesante extender el modelo de bosques comestibles a las diferentes zonas de la ciudad para implicar a las comunidades del entorno y crear zonas verdes más habitables para toda la ciudadanía. Un ejemplo de ello es el manzanal plantado en el parque de Miramón y en esta actividad os invitamos a conocerlo, junto con el caserío Katxola que se encuentra al lado.
Katxola no es un simple caserío, es un caserío-lagar y junto a los miembros de la asociación de vecinos Lantxabe de Aiete conoceremos su historia y funcionamiento en esta actividad familiar. Además, tendremos la oportunidad de recoger la cosecha en auzolan y elaborar y degustar el zumo producido.

---

**LEKUA: Katxola baserria, *Paraiso kalea 22***
LUGAR: Caserío Katxola, *calle Paraíso 22*

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: WWW.CRISTINAENEA.EUS

# *Pleamar* proiektua. Bisita gidatua eta tailerra
# Proyecto *Pleamar*. Visita guiada y taller

**Biodiversidad Fundazioko ordezkariek Pleamar Proiektuaren esparruan hautatutako proiektuen jarraipenari eta gauzatzeari buruzko azalpenak emango dituzte, eta, ondoren, parte-hartzaileek, haurrak dituzten familiak, *Itsasoari korapilatuta* tailerra egingo dute. Bertan, modu ludiko eta dibertigarrian, antzezlan bat balitz bezala, gure kostaldeetako protagonista batzuk ezagutuko dituzte eta non bizi diren, nola mugitzen diren eta zertaz elikatzen diren ikasiko dute. Parte-hartzaileak interpreteak izango dira gure kostalde eta itsasertzeko biodibertsitateari balioa eman nahi dion antzezlan berezi honetan, organismo bakoitzak itsas ekosistemen orekan duen garrantzia azpimarratuz.**

Estas visitas comenzarán con las explicaciones de representantes de Fundación Biodiversidad sobre el seguimiento y ejecución de los proyectos seleccionados en el marco del Proyecto Pleamar, y a continuación, las personas participantes, familias con niños y niñas, realizarán el taller *Enrédate al mar,* en el que, de un modo lúdico y divertido, como si de una obra de teatro se tratara, conocerán algunos protagonistas de nuestras costas y aprenderán dónde viven, cómo se mueven y de qué se alimentan. Las personas participantes serán los intérpretes en esta peculiar obra que pretende poner en valor la biodiversidad de nuestras costas y litorales, destacando la importancia de cada organismo en el equilibrio de los ecosistemas marinos.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 03 | **URRIA** OCTUBRE | **EU** I ES 11:00 | **Tailerra** |
| 18 | **URRIA** OCTUBRE | EU I **ES** 11:00 | Taller |

**Bi datetan bisita gidatua gazteleraz.**
En ambas fechas visita guiada en castellano.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



ASTEKLIMA 2026
Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

10 URRIA OCTUBRE | **ELEBIDUN** BILINGÜE

11:00

**BESTEAK** OTROS

# Burujabe cha cha cha

**Zer egin dezakegu gure burua zaintzeko? Nola antolatu gaitezke bertako elikagaiak urte osoan jasotzeko? Ezinbestekoa al da energia enpresa handien esku uztea? SARETUZekin batera urtero heltzen diogu gai desberdin bati eta urria da herritarrei egindako lanketa plazaratzeko garaia. Aurten burujabetzaren inguruan hausnartu ondoren adin guztientzat pentsatutako festa antolatu dugu. Goiz osoan zehar ekintza desberdinak egongo dira modu atsegin batean gure erabakien jabe izateko eman ditzakegun pausoak ezagutzeko: mahai ingurua, sukaldaritza tailerra, autozaintza, eskulan tailer irekia, erakusketa... Animatzen zarete? Informazio guztia www.saretuz.eus webgunean.**

¿Qué podemos hacer para auto-cuidarnos? ¿Cómo podemos organizarnos para tener alimentos locales todo el año? ¿Es imprescindible dejar la energía en manos de grandes empresas? Junto con SARETUZ cada año abordamos un tema diferente y octubre es el momento de compartirlo con la ciudadanía. Este año, tras reflexionar sobre la soberanía, hemos organizado una fiesta pensada para todas las edades. Durante toda la mañana habrá diferentes actividades para conocer de una manera amena los pasos que podemos dar para adueñarnos de nuestras decisiones: mesa redonda, taller de cocina, autocuidado, taller abierto de manualidades, exposición... ¿Os animais? Toda la información en www.saretuz.eus.

**LEKUA: Cristina Enea parkeko jauregi ondoko zelaian**
LUGAR: Campa junto al palacio del Parque Cristina Enea



SARETuz

19 **AZAROA** NOVIEMBBRE | EU | **ES** | 18:00

**BESTEAK**
OTROS

# Cosas de manzanas, lectura compartida

**1979an John Bergerrek *Puerca tierra* argitaratu zuen, *De sus fatigas* trilogiaren lehen liburukia. Bertan, hainbeste jende bere herriak uztera eta hirien periferietara mugitzera eraman zuen landa-exodoaz hitz egiten da. Lehen liburu hau ipuin eta olerki sail batek osatzen dute, nekazarien mundu zaharreko azken arrastoak modernizazioaren inertzia geldiezinak lekualdatzen dituen unera garamatzatenak. *Diruaren balioa* irakurtzera animatzen zaituztegu. Sagarren, ardien, traktoreen eta alanbikeen istorioa da, eta gai deserosoak planteatzen ditu, baina oso egokiak nekazarien mundu tradizionalean eta, kontrastez, egungo gizarte industrialetan indarrean zeuden balioei eta kosmobisioari buruz hausnartzeko.**
**Planteatzen duen gaiari buruzko irakurketa eta inpresioak partekatzeko, Marc Badalen laguntza izango dugu, eta Katxola tolare-baserria bezalako ingurune ezin hobean partekatuko dugu.**

En 1979 John Berger publicó *Puerca tierra,* el primer volumen de la trilogía *De sus fatigas,* en la que se da cuenta del éxodo rural que llevó a tanta gente a dejar sus pueblos y desplazarse a las periferias de unas ciudades que crecían aceleradamente. Este primer libro está compuesto por una serie de cuentos y poemas que nos trasladan al momento en que los últimos rastros del viejo mundo campesino son desplazados por la irrefrenable inercia de la modernización.
Os animamos a leer *El valor del dinero,* una historia de manzanas, ovejas, tractores y alambiques que plantea cuestiones ciertamente incómodas, pero muy pertinentes para reflexionar sobre los valores y la cosmovisión que regían en el mundo campesino tradicional y, por contraste, en las actuales sociedades industriales.
Para compartir la lectura y las impresiones sobre el tema que plantea, contaremos con Marc Badal, que contextualizará la situación que se plantea en el cuento en un entorno inmejorable como es el caserío-lagar Katxola.

---

**LEKUA: Katxola tolare-baserria, *Paraiso kalea 22***
LUGAR: Caserío-lagar Katxola, *calle Paraíso 22*

---



# ASTEKLIMA
# Euskadiko Klima eta Energiaren Astea

## Semana del Clima y la Energía de Euskadi

**ASTEKLIMA, Euskadiko Klima eta Energiaren Astea ospatzeko, hainbat jarduera antolatu dira trantsizio energetikoa eta klima-aldaketa den erronkari buruz era entretenigarri eta didaktikoan kontzientziatu eta mobilizatzeko.**

Para celebrar ASTEKLIMA, Semana del Clima y la Energía de Euskadi, se han organizado diversas actividades para concienciar y movilizar de una manera amena y didáctica frente a la transición energética y sobre el reto que supone el cambio climático.

ASTEKLIMA 2026
Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# EtxEKOlanda

**Beren barazkiak hazi eta zainduz nekazaritza ekologikoaren mundura hurbildu nahi dutenen kopurua handituz doa azken aldian, eta gero eta ohikoagoa da gure hiriko balkoi eta terrazetan baratzeak ikustea. Cristina Enea Fundazioak eta Donostia Kulturak sustaturiko EtxEKOlanda egitasmoak hiri eta etxe-baratzetan interesa duten pertsonentzako topagunea eskaintzen du. Donostiako zenbait kultur etxe eta udal ekipamendutan dago kokatua, bertan baratza lantzeko guneak prestatu dira, airepeko ikasgelak bihurtuz.**

En los últimos años ha sido notable aumento de personas que desean acercarse al mundo de la agricultura ecológica, cultivando sus propias verduras y hortalizas, y los huertos urbanos en balcones, terrazas o azoteas, son cada vez más abundantes en nuestra ciudad. El proyecto EtxEKOlanda, impulsado por Fundación Cristina Enea y Donostia Kultura proporciona un espacio de encuentro para todas las personas interesadas en el cultivo de huertos ecológicos urbanos y domésticos. La iniciativa se ubica en casas de cultura y equipamientos municipales, donde se han habilitado espacios para cultivar hortalizas en sus terrazas y terrenos, convirtiéndose de este modo en auténticas aulas al aire libre.



etxEKOlanda

# FruitOndoan

**Cristina Enea Fundazioak hiriko nekazaritzaren sustapenaren alde bere aletxoa jarri du Gipuzkoako bertako frutaarbolen lehen sarea sortuz, FruitOndoan, hiriko gune publikoetan, eta beti ere ikuspegi sozio-komunitario, parte-hartzaile eta agroekologiko batetik, nekazaritzaren eta hiriaren arteko zubiak eraikiz.**

Fundación Cristina Enea aporta su granito de arena al fomento de la agricultura urbana creando la primera red en Gipuzkoa de árboles frutales comunitarios en espacios públicos urbanos, FruitOndoan, siempre desde una perspectiva socio-comunitaria, participativa y agroecológica, tendiendo puentes entre el mundo agrario y la ciudad.



FRUITONDOAN

# Haziera. Hazien artxiboa
# Haziera. Archivo de semillas

**Haziak eta beren inguruko jakinduria zabaltzeko eta partekatzeko lekua da. Eskala txikiko nekazaritzari eusteko, eta landutako bioaniztasunaz kezkatzen diren pertsona eta erakundeentzako topagunea. Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean hazien artxibo honek landa munduari leiho bat irekitzen dio.**

Es un espacio de intercambio de semillas y de conocimientos. Un punto de encuentro entre personas y organizaciones que se interesan por la biodiversidad cultivada y por el mantenimiento de la agricultura a pequeña escala. El archivo de semillas del Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea abre una ventana al campo para reflexionar sobre la situación actual de la agricultura y la alimentación.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea





# ULIA INTERPRETAZIO ZENTROA

## CENTRO DE INTERPRETACIÓN DE ULÍA

# Animalien koreografiak
## Coreografías animales

**Animalien ezaugarrietako bat da mugitzeko gaitasuna, baina ez dira bakarrik alde batetik bestera joateko mugitzen eta ez dute edozein moduan egiten, babesteko, edo komunikatzeko benetako koreografiak egiten dituzte.**
**Erakusketa honetan Ttarttalo argitaletxearen *Animalien Koreografiak* liburuan jasotzen diren Nuria Solsonaren ilustrazioekin osaturiko panelen bitartez, animalien mugimenduaren bitxikeriak ezagutu ahalko ditugu.**

Una de las características de los animales es su capacidad de moverse, pero no sólo se mueven para ir de un lado a otro y no lo hacen de cualquier manera, sino que realizan auténticas coreografías con distintos objetivos como protegerse o comunicarse.
En esta exposición, podremos conocer las curiosidades del movimiento animal a través de paneles realizados con las ilustraciones de Nuria Solsona que se encuentran recogidas en la publicación *Coreografías animales* de la editorial Zahori books.

**LEKUA** LUGAR: **Ulia Interpretazio Zentroa** Centro de Interpretación de Ulía




ASTEKLIMA 2026
Euskadiko Klima eta Energiaren Astea
Semana del Clima y la Energía de Euskadi

11 **URRIA** OCTUBRE | **EU** | ES

11:30

# Paper artean hegan

**Urriarekin batera Hegaztien Eguna ospatzeko momentua iritsi da. Aurten Uliako basoko hegaztiak ezagutu eta gure irudimena erabiliz beraiei buruzko istorio gustukoena jasoko duen liburuxka sortuko dugu.**

Con el mes de octubre llega también el momento de celebrar el Día de las Aves. Este año conoceremos los pájaros del bosque de Ulía, y con nuestra imaginación crearemos un librillo que recogerá nuestra historia favorita sobre ellos.

**LEKUA** LUGAR: **Uliako aparkalekua** Aparcamiento de Ulía

**ADINA** EDAD: **+5**

**FIDANTZA** FIANZA: **2€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



# Baso bainua Ulian

**Urtaro bakoitzak ba du bere xarma eta zer esanik ez udazkenak. Basoaren koloreak guztiz aldatzen dira eta argi misteriotsu batek biltzen du guztia. Honek gure zentzumenak pizten ditu eta egoera ezin hobean jartzen gaitu baso bainu batez gozatzeko. Zatoz udazken koloretan murgildu eta egunerokotasunak sortzen digun zurrunbilotik ateratzeko balioko digun teknika osasuntsu hau ezagutzera.**

Cada estación tiene su encanto y qué decir del otoño. Los colores del bosque cambian por completo y una luz misteriosa lo envuelve todo. Esto despierta nuestros sentidos y nos pone en perfecto estado para disfrutar de un baño de bosque. Ven a conocer esta saludable técnica que nos sumergirá en los colores otoñales y nos servirá para salir del remolino que nos genera el día a día.

**LEKUA** LUGAR: **Uliako aparkalekua** Aparcamiento de Ulía

**FIDANTZA** FIANZA: **5€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



Argazkia / Foto: plus 55

cristina enea
FUNDAZIOA

Patronoak | Patronos

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente

añarbe
urak aguas

Mandasko Dukearen pasealekua, 66
20012 Donostia/San Sebastián
(+34) 943 45 35 26
cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

**Ordutegia**
Astelehenetik ostiralera: 09:30 > 18:00*
Larunbata: 10:00 > 14:00 / 15:00 > 19:00
Igande eta jaiegunetan: 10:00 > 14:00
*Ekainak 1etik irailak 30era, 19:00 arte

**Horario**
Lunes a viernes: 09:30 > 18:00*
Sábado: 10:00 > 14:00 / 15:00 > 19:00
Domingos y festivos: 10:00 > 14:00
*Del 1 de junio al 30 de septiembre, hasta las 19:00